

Joan San Martin jaunak, «Zirikadak» eta «Eztenkadak» eskribitu zituanean, Eibar-en erabiltzen ziran hitz eta aditz forma askoz baliatu zan. Hori oso ondo baitago!

Bada beste gauza bat ere. Oraindik ere, lekuan lekuko asko da, beste lekuetan oso gutxi erabiltzen diranak, baiñan, berboei-eta zerbait berririk erasten dietenak. Gipuzkoa-ko eskualde batean, asko esaten dira forma hok: «goazemak, goazeman, goazemazu, goazemazue». *Goazen* «vamos» bada, *goazemak* «vámomos tú» baita, eta *goazemazute* «vámomos ustedes», eta beraz, «goazen» horri zerbait baiño gehiago erasten baitio.

«Goazemak eta goazemazuei» buruz esan duguna, beste anitz hitzez eta formez esan diteke. Behar baitira berpiztu!

S. Garmendia.

JAZINTO CARRASQUEDO OLARRA 1965 URTEKO «TORIBIO ALZAGA» TEATRO SARIAREN IRABAZLE

Epai-maia'koak ao batez erabaki dute saria «Laratzean sua» iru ekitaldi dituan Teatro lanari ematea, besteak baño obegotzat jotzen dutelako. Egillea. Carrasquedo Olarra jauna da. Orobat erabaki dute aipamen berezia merezi dutela beste iru antzerki-lan auxkek: 1. «Nor errudun?», Xabier Gereño jaunarena. 2. «Brokel jauna», J. Antonio Arkotxa jaunarena. 3. «Biotzaren neurria», Pedro Sarriegi jaunarena.

Donostia'n, 1965 agorraren 24'n. Antonio M.^a Labayen, Agustin Zubikarai, Gabriel Aresti.

GABRIEL ARESTI 1965 URTEKO «LIZARDI» POESIA SARIAREN IRABAZLE

«Euskal-harria» lanarekin irabazi zuen Gabriel Aresti-k «Lizardi» saria. Iru boto izan zituen. Luis Maria Mujika-k boto bat «Nire errotatik» lanagatik eta Antonio Bilbao Monasterio-k beste bat «Bi ta bi lau ta bi... zortzi»-gatik. Juradua: M. Lekuona, P. Lafitte, J. San Martin, N. Etxaniz eta M. Lasa.

MANUEL MATXAIN 1965 URTEKO «XENPELAR» SARIAREN IRABAZLE

Honela erabaki zan:

1. Manuel Matxain, Salvatore Mitxelena zanari jarritako bertsoakatik, kontuan izanik gaiñera beste sorta on asko aurkeztatu dituela.

2. Inozenzio Olea, eiztariai jarritako amalau bertsoatik.

3. Jesus Lete «Ibai-ertz», asto bati jarritako amasei bertsoatik.

4. Gillermo Albizu, bildots bati jarritako amalau bertsoatik.

Juradua: J. M.^a Satrustegi, Aita A. Zavala, Basarri, Bordari, A. Irigoyen, J. San Martin, Juan Mari Lekuona eta A. Arrue.